# LAZKAO

| # 20 | 2020 AZAROA |

LAZKAOKO UDALA



## Elkartuko gara berriro gure betiko lekuetan. Orain zaintzea dagokigu

**El consistorio impulsa una nueva línea de ayudas a la financiación de inversiones y actualiza la guía comercial para seguir apoyando el comercio, hostelería y los servicios del municipio**



EL AYUNTAMIENTO CAMBIARÁ 226 LUMINARIAS A TECNOLOGÍA LED A FINALES DE AÑO

[ 4 -5 ]



ZERGA ETA TASA GUZTIAK BERE HORRETAN, ZABORRARENA KENDUTA

[ 11 ]



# Inbertsioak finantzatzeko laguntza lerroa, bono gehiago eta gida komertzial eguneratua, merkataritza eta ostalaritza sustatzeko Berraktibazio Planaren II. fasean

COVID-19ak sortutako egoera berrira egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua finantzatzeko diru-laguntza lerro berriaren eskaera epea azaroaren 3tik abenduaren 30a bitartekoa izango da. Zenbatekoa inbertsioaren %80koa izango da, betiere 2.000 euroko guztirako mugarekin.

Covid-19ak eragin zuzena eta larria sortu du osasun, gizarte eta ekonomia mailan ere. Ildo honetan, osasun eta gizarte ondorioak leuntzeko hainbat ekimen eta neurri hartu zituen Lazkaoko Udalak maiatzean abian jarritako Berraktibazio Planaren baitan: udalerriko jarduera ekonomikoa ahalik eta lasterren berreskuratzeko osasun-baldintza egokienak bermatzeak dakarren gastuen % 60 diruz laguntzeko lerroa, hobariak zergetan eta udal-tasetan, edota bono kanpaina, beste hainbaten artean.

Covid-19ak gure artean jarraitzen du, eta birusa saihesteko neurriek zuzenki eragiten die merkatari, ostalari edota zerbitzu ezberdinei. Hori horrela, Lazkaoko udalak Berraktibazio Planaren bigarren fasea jarri du abian udazkenean: II. Kontsumo bono kanpaina 2.500 bonorekin, merkataritza eta ostalaritza guneak COVID-19ak sortutako egoera berrira moldatu eta jarduerak ber-asmatzeko egindako inbertsioak laguntzeko lerroa, eta Lazkaoko Gida Komertzialaren eguneraketa eta zabalpena.

**COVID-19ak sortutako egoera berrira egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua finantzatzeko diru-laguntza lerro berria**

Lazkaoko Ekonomia sustatzea eta garatzea Lazkaoko Udalaren oinarri estrategiko izanik, 2020-ko martxoko itxialdiaren ondoren eta kalte ekonomiko larriei aurre egiten lagundu nahian, herriko merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren jarduera ahalik eta azkarren berreskuratu zedin laguntza lerro bat aktibatu zen. Irekiera hori osasun baldintza egokietan egin zedila bermatu nahia zuen oinarri. Herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzaren jarduera gehiena berriro ere aktibatzea lortu den arren, COVID-19-ak sortuta egoera berriak jarduerak moldatu eta ber-asmatzeko beharrizana sortu du kasu askotan. Inbertsio horiek finantzatzeko laguntza lerroa jarri du abian udalak. Eskaera epea azaroaren 3tik abenduaren 30a bitartekoa izango da.

Diru-laguntza hauek herriko merkatari, zerbitzu eta ostalariek 2020ko martxoaren 13tik hasi eta 2020ko abenduaren 30era bitartean izandako ondorengo gastuak laguntzeko izango dira:

- Merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza lokalak eta terrazak egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua, COVID-19ak sortutako egoera berrira moldatu eta jarduerak ber-asmatzeko. Hartara segurtasun eta osasun protokolo irizpideak betez. Honez gain, inbertsio hauek egiteko beharrezkoak diren ikerketak.
- Bezeroekin eta entitate hornitzaileekin lan erlazio berrietara egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua (transformazio digitala).




Laguntzaren zenbatekoa justifikatutako inbertsioaren %80koa izango da, betiere 2.000 euroko guztirako mugarekin. Gastu hauen justifikaziorako dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira (martxoaren 13tik abenduaren 30era bitartekoak). Diru-laguntzak eskabideak jaso ahalako hurrenkeran banatuko dira. Diru-laguntza lerro berri hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sortu da.

**Gida komertziala eguneratu da**

Lazkaoko udalak Gida Komertziala eguneratu du. 2016an argitaratu zen lehen aldiz, eta orain, herriko hirugarren sektorearen datuak eguneratuta kaleratu da berriro, fisikoki zein era digitalean. "Zerbitzua ikusarazi eta herritarrak bertan erostera animatzeko" helburua du oinarri udal ordezkarien esanetan.

Guztira 220 saltokiren informazio batzen du: kokalekua, kontaktua, zerbitzu mota... 76 merkatariak dira, 25 ostalaritza eremu, 58 enpresa eta 61 zerbitzu. Lehenengoz lehen sektoreko ekoizleen informazioa ere barneratu da Gidan. Udal eraikinetan dago eskuragarri, eta era digitalean www.lazkao.eus en.

**'Nik Lazkaon, zuk zergatik ez?' kanpainaren 2. sortako 2.500 bonuak agortuta**

Herriko ekonomia berraktibatzeko 'Nik Lazkaon, zuk zergatik ez' bonu kanpainari jarraipena eman zion Lazkaoko Udalak bono sorta berri bat kaleratuz pasa den urriaren 19an: guztira 1.500 bono berri jarri ziren salgai. 3 egunetan agortu ziren. Ondorioz, 2. Sorta 1.000 bono gehiagorekin zabaltzea erabaki zen eta azaroaren 2an jarri ziren salgai. Egun bakarrean agortu ziren. 20 euroko prezioan 30 euro erosteko ahalmena dute bonudunek eta azaroaren 28a bitarte erabili daitezke.




> *Agotados los 2.500 bonos de la campaña 'Nik Lazkaon, zuk zergatik ez?'*

# Línea de ayudas para la financiación de inversiones, más bonos y guía comercial actualizada para seguir apoyando el comercio y la hostelería local en la II fase del Plan de Reactivación del Ayuntamiento de Lazkao

La Covid-19 ha generado un impacto directo y grave a nivel sanitario, social y económico. En este sentido, el Ayuntamiento de Lazkao adoptó diversas iniciativas y medidas para paliar los efectos sanitarios y sociales en el marco del Plan de Reactivación puesto en marcha en mayo: línea subvencional del 60% de los gastos que supone garantizar las mejores condiciones sanitarias para recuperar lo antes posible la actividad económica del municipio, bonificaciones en impuestos y tasas municipales, o campaña de bonos, entre otras medidas.

La Covid-19 sigue entre nosotros y las medidas para evitar el virus afectan directamente a los comerciantes, hosteleros o servicios. Así, el Ayuntamiento de Lazkao ha puesto en marcha en otoño la segunda fase del Plan de Reactivación: la II. Campaña de bono de consumo con 2.500 bonos, línea de apoyo a las inversiones realizadas para adecuar los comercios y la hostelería a la nueva situación creada por el COVID-19 y actualización y difusión de la Guía Comercial de Lazkao.

**Nueva línea subvencional para la financiación de inversiones y equipamiento para la adaptación a la nueva situación creada por el COVID-19**

Siendo la promoción y desarrollo económico de Lazkao una de las bases estratégicas del Ayuntamiento de Lazkao, tras el confinamiento de marzo de 2020 y con el objetivo de contribuir a hacer frente a los graves perjuicios económicos, se activó una línea de ayudas para que la actividad comercial, de servicios y de hostelería del municipio se recuperara lo antes posible. Se basaba en garantizar que esta apertura se realizara en condiciones sanitarias adecuadas. Aunque se ha conseguido reactivar la mayor parte de la actividad comercial, de servicios y de hostelería de la localidad, la nueva situación creada por la covid-19 ha generado en muchos casos la necesidad de adaptar y reinventar las actividades. El consistorio ha puesto en marcha una línea de ayudas para financiar estas inversiones. El plazo de solicitud será del 3 de noviembre al 30 de diciembre.

Estas subvenciones estarán destinadas a subvencionar los siguientes gastos incurridos por los comerciantes, servicios y hosteleros de la localidad desde el 13 de marzo de 2020 hasta el 30 de diciembre de 2020:

Inversiones y equipamiento para la adecuación de locales comerciales, de servicios y de hostelería y terrazas para la adaptación de las actividades a la nueva situación creada por la covid-19, siguiendo así los criterios de protocolo de seguridad y salud. Además de esto, las investigaciones necesarias para realizar estas inversiones.

Inversiones y equipamiento para la adaptación a las nuevas relaciones laborales con clientes y entidades proveedoras (transformación digital).

El importe de la ayuda será del 80% de la inversión justificada, con un límite total de 2.000 euros. Para la justificación de estos gastos se deberán presentar las facturas correspondientes (del 13 de marzo al 30 de diciembre).

Las subvenciones se distribuirán por orden de recepción de las solicitudes. Esta nueva línea subvencional se impulsa con la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Se ha actualizado la guía comercial**

El Ayuntamiento de Lazkao ha actualizado la Guía Comercial. Se publicó por primera vez en 2016 y ahora se ha vuelto a publicar de forma actualizada, tanto física como digital, incluyendo los datos del tercer sector de la localidad. Los representantes municipales aseguran que el objetivo es "visibilizar el servicio y animar a la ciudadanía a comprar en él".

Recoge la información de un total de 220 comercios: ubicación, contacto, tipo de servicio... Por primera vez se ha incluido en la Guía la información de los productores del sector primario. Está disponible en edificios municipales y digitalmente en www.lazkao.eus.

**Agotados los 2.500 bonos del 2° lote de la campaña 'Nik Lazkaon, zuk zergatik ez?**

El Ayuntamiento de Lazkao dio continuidad el pasado 19 de octubre a la campaña de bonos 'Nik Lazkaon, zuk zergatik ez' para reactivar la economía de la localidad: se pusieron a la venta un total de 1.500 bonos nuevos. Se agotaron en 3 días. En consecuencia, se decidió ampliar el lote con 1.000 bonos más y se pusieron a la venta el 2 de noviembre. Ya se han agotado. Al precio de 20 euros los bonos tienen un valor adquisitivo de 30 euros y se pueden canjear en 61 comercios de la localidad hasta el 28 de noviembre.



# 226 kale-argi LED teknologiara aldatuko ditu Udalak Mikelar, San Jose, San Prudentzio eta biribilgunean urte amaieran

*"Argiztapen-sistema berrien instalazioek energia-eraginkortasuna hobetzea dute helburu, lehendik daudenen ordez energia-kontsumo murritzagoa eta ingurumenarekiko begirunea dakarten beste batzuk jarriz, jasangarritasun-ereduan sakonduz*

*Inbertsioa 85.000 eurotakoa izango da eta aktuazioa Lazkaoko Udalaren Energia Jasangarriaren eta efizientzia energetikoa Hobetzeko Ekintza Planaren baitan kokatzen da*

Jarduerarern helburua argiteria publikoan energia elektrikoaren kontsumoa murriztea da, egungo argiak Led teknologiako argi berriekin ordezkatuz eta puntuz puntuko telegestio-sistema bat ezarriz.

226 kale-argi aldatuko ditu Udalak LED teknologiara urtea amaitu baino lehen Mikelar, San Jose, eta San Prudentzio kaleetan eta biribilgunean. Inbertsioa 85.000 eurotakoa izango da eta aktuazioa Lazkaoko Udalaren Energia Jasangarriaren eta efizientzia energetikoa Hobetzeko Ekintza Planaren baitan kokatzen da. Aktuazio honekin, gainera, argiztapenaren kalitatea hobetzen da.

Lau argi-koadroetatik ordeztu beharreko luminarien egungo kontsumo-egoeraren urteko erreferentziako batez besteko kontsumoa 146.651 kWh-koa da. Jarduketa honen bidez, gutxienez energia % 65 aurreztu nahi da aipatutako kontsumoaren gainean. Luminaria horiek ordezkatuz eta puntuz puntuko erregulazio-sistema bat ezarriz, energia-kontsumoa murriztu, ingurunearekiko jasangarriagoak bilakatu, argiztapenaren kalitatea hobetu eta, gainera, instalazioaren mantentze-lanen kostuak murriztu nahi dira; izan ere, Led teknologiako luminariek bizitza erabilgarri luzeagoa dute, energetikoki eraginkorragoak dira eta argi-fluxuaren bat-bateko erregulazioa ahalbidetzen dute. Aipatzekoa da aurrezpen horrek atmosferara isurtzen diren berotegi-efektuko gasak gutxitzea eta argi-kutsadura gutxitzea ekarriko duela.

Energia Jasangarriaren eta efizientzia energetikoa Hobetzeko Ekintza Planaren lan lerroarekin bat eginez, kale argiteriko 450 kaleargi baino gehiago Led teknologiaz aldatzea lortu da azken urteetan, baita kontrol adimenduneko sistema berri bat txertatzea ere lanparetan, kontsumo-datuak denbora errealean eskainiz, beste hainbaten artean.

Udala, baita ere, aurrezpen energetikoa bultzatzeko neurriak hartzen ari da udal-eraikinetan.



# El Ayuntamiento cambiará 226 luminarias a tecnología Led en Mikelar, San José, San Prudencio y la rotonda a finales de año

El Ayuntamiento cambiará 226 luminarias a tecnología LED antes de fin de año en las calles Mikelar, San José, y San Prudencio y en la rotonda. La inversión será de 85.000 euros y la actuación se enmarca en el Plan de Acción para la Energía Sostenible y la Mejora de la Eficiencia Energética del Ayuntamiento de Lazkao. Además, mejora la calidad lumínica de las calles del municipio.

El objetivo del proyecto es reducir el consumo de energía eléctrica en el alumbrado público, sustituyendo las luces actuales por las nuevas luces de la tecnología Led y estableciendo un sistema de telegestión punto por punto.

El consumo medio anual de referencia de la situación de consumo actual de luminarias a sustituir por los cuatro cuadros luminosos es de 146.651 kWh. Con esta actuación se pretende ahorrar al menos un 65% de energía sobre el consumo mencionado. La sustitución de estas luminarias y la implantación de un sistema de regulación punto por punto pretende reducir el consumo energético, hacerlas más sostenibles con el medioambiente, mejorar la calidad de la iluminación y, además, reducir los costes de mantenimiento de la instalación, ya que las luminarias de tecnología Led tienen una vida útil más larga, son más eficientes energéticamente y permiten una regulación instantánea del flujo lumínico. Cabe destacar que este ahorro supondrá una disminución de las emisiones de gases de efecto invernadero a la atmósfera y una disminución de la contaminación lumínica.

Bajo las líneas de trabajo que el próximo Plan de Acción para la Energía Sostenible y la Mejora de la Eficiencia Energética, en los últimos años se ha conseguido cambiar más de 450 luminarias de alumbrado viario por tecnología LED, así como incorporar un nuevo sistema de control inteligente en las farolas, ofreciendo datos de consumo en tiempo real, entre otros.

El Ayuntamiento también está tomando medidas para impulsar el ahorro energético en los edificios municipales.

> *El ahorro energético supondrá una disminución de las emisiones de gases de efecto invernadero a la atmósfera y una disminución de la contaminación lumínica*
>
> *La inversión será de 85.000 euros y la actuación se enmarca en el Plan de Acción para la Energía Sostenible y la Mejora de la Eficiencia Energética del Ayuntamiento de Lazkao*

## Ertzile bidean Ertziltxo baserri bitarteko kaleargiak Led teknologiara aldatu dira

Ertzile bidean Ertziltxo baserri bitarteko kaleargiak Led teknologiara aldatu dira. Ekintza hau Olaberria eta Lazkaoko Udalen arteko elkarlanean sustatu da.

Kaleargiak LED teknologiara aldatzeaz gain, egun zeuden kale-argien zutabeen altuera ere areagotu da argiztapen maila hobeak lortzeko, eta bi kaleargi osagarri jarri dira. Instalatuta zeuden kale-argien kontsumoa ere nabarmen jaitsi da: 8465,84 kw-etatik 2.963,04 kw-etara pasa da.

## Las luminarias del camino Ertzile hasta el caserío Ertziltxo se han cambiado a tecnología Led

Desde el camino Ertzile hasta el caserío Ertziltxo se han cambiado las luminarias a tecnología Led. Esta acción se ha promovido en colaboración entre los Ayuntamientos de Olaberria y Lazkao.

Además de cambiar las luminarias a tecnología Led, también se ha incrementado la altura de los pilares existentes para lograr mejores niveles de iluminación y se han instalado dos luminarias complementarias. El consumo de alumbrado público ha descendido considerablemente, pasando de 8465,84 kw a 2.963,04 kw.






# ‘GOIERRIN INDARKERI MATXISTARIK EZ!’ SORMEN LEHIAKETA ABIATU DA

## IZEN EMATEA AZAROAN ZEHAR ZABALIK EGONGO DA ETA LANDU BEHARREKO GAIA HONAKOA DA: COVID-19AREN PANDEMIA ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Egunerokotasunean emakumeek* indarkeria psikologikoa, sexuala, ekonomikoa nahiz fisikoa pairatzen dute hainbat intentsitatetan. Kasu askotan, egora hori erailketaraino iristen da, gizarte antolamendu patriarkalaren ondorio zuzen gisa. Gipuzkoako Goierri eskualdeko emakumeak ez dira salbuespena.

Indarkeria matxista arazo konplexua da eta hori konpontzeko erantzun integralak behar dira. Urtean zehar hainbat prebentzio programa eta kanpaina garatzen dira, baina morez markatutako eguna azaroaren 25a izaten da, non herritarrak, mugimendu feministak zein administrazio erakundeek bat egiten duten, eta ahotsa altxatzen duten errealitate gordin honen aurka.

Egun horren inguruan zenbait ekitaldi eta ekintza antolatzen dira bereziki herritarren kontzientziazio, sentsibilizazio edo ardura sustatzeko xedez, eta baita salaketa tresna moduan ere. Helburu berberarekin Goierriko sei herritako berdintasun teknikarik beraien udalen babes osoarekin, berdintasuna sustatzeko bide berriak eraikitze aldera, lehenengo aldiz Goierri osora zabaldutako sormen lehiaketa bat antolatu dute. Hain zuzen ere, Beasain, Lazkao, Legorreta, Ordizia, Segura eta Zaldibiako udalak dira ekimen honen sustatzaileak, eta dagoeneko lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna abenduaren 4a izango da.

Lehiaketaren gaia COVID-19aren pandemia eta emakumeen aurkako indarkeria da. Gaia ardatz hartuta lana bideo formatuan aurkeztu behar da, baina bertan agertuko den grabaketan edozein sorkuntza mota agertu ahal izango da. Adibidez, marrazkiak, eskulturak, argazkiak, bertsoak, idazkiak, irakurketak, dantzak, antzerkiak etab. Bideoak gutxienez 3 segunduko iraupena izan beharko du eta gehienez 300 segundukoa (5 minutu). eta banaka edo taldeka parte hartu ahal izango dute NANaren arabera Gipuzkoako Goierri eskualdeko herri batean erroldatuta dauden edozein adinetako biztanleek, baina adin txikikoak izatekotan adin nagusiko arduradun bat izan beharko dute.

Sariei dagokienez, puntu gehien lortzen dituen lanetik hasita hurrenez hurren Goierriko saltoki txikiatan gastatzeko 200€, 150€ko eta 100€ko bonoak banatuko dira, eta hauez gain udal sustatzaileetako lehengo sailkatuei 50€ko bonoak emango zaizkie.

**+ INFO www.lazkao.eus**

---

# ARRANCA EL CONCURSO CREATIVO 'GOIERRIN INDARKERIA MATXISTARIK EZ!'

**LA INSCRIPCIÓN ESTARÁ ABIERTA DURANTE EL MES DE NOVIEMBRE Y EL TEMA A TRATAR ES: LA PANDEMIA DEL COVID-19 Y LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES**

Cada día las mujeres* sufren violencia psicológica, sexual, económica y física en diferentes intensidades. En muchos casos, esta situación llega hasta el asesinato, como consecuencia directa de la organización social patriarcal. Las mujeres de la comarca guipuzcoana del Goierri no son una excepción.

La violencia machista es un problema complejo que requiere respuestas integrales. A lo largo del año se desarrollan diversos programas de prevención y campañas, pero el día marcado en morado es el 25 de noviembre, en el que la ciudadanía, tanto el movimiento feminista como las instituciones administrativas se unen y alzan la voz contra esta cruda realidad.

En torno a este día se organizan una serie de actos con el objetivo de fomentar la concienciación, sensibilización o responsabilidad de la ciudadanía en particular, así como como como herramienta de denuncia.

Con el mismo objetivo, las técnicas de igualdad de seis localidades del Goierri han organizado un concurso creativo, abierto por primera vez a todo el Goierri, con el apoyo de sus ayuntamientos para construir nuevas vías de promoción de la igualdad.

En concreto, los ayuntamientos de Beasain, Lazkao, Legorreta, Ordizia, Segura y Zaldibia son los promotores de esta iniciativa y ya está abierta la inscripción para participar en el concurso. La fecha límite para participar en el concurso será el 4 de diciembre.

El tema del concurso es la pandemia del COVID-19 y la violencia contra las mujeres.

El trabajo sobre el tema se presentará en formato vídeo, y podrá aparecer cualquier tipo de creación artística en la grabación del vídeo aparecer cualquier tipo de creación. Por ejemplo, dibujos, esculturas, fotografías, versos, escritos, lecturas, bailes, teatros, etc.

El vídeo deberá tener una duración mínima de 3 segundos y máxima de 300 segundos (5 minutos) y podrán participar de forma individual o colectiva los habitantes de cualquier edad que, según el DNI, estén empadronados en una localidad de la comarca guipuzcoana del Goierri, pero en caso de ser menores de edad deberán contar con una persona responsable mayor de edad.

En cuanto a los premios, se repartirán bonos de 200 €, 150 €y 100 € para gastar respectivamente en el pequeño comercio del Goierri a partir del trabajo que obtenga mayor puntuación. Además de los bonos de 50 € para quien se clasifique en cada uno de los municipios promotores del concurso.

**+ INFO www.lazkao.eus**



# Udal Brigadak herri-altzarien mantenua, herri-bideen asfaltaketa edota ur-sistemaren kudeaketa burutu du

Txindoki zahar egoitzan, eremu publikoaren zati bat egurrezko hesiz, altzairuzko ate eta lorontziz, eta egurrezko bankuen bitartez mugatu da bertako erabiltzaileentzat. Aldi berean, eremu barruan gelditu diren bankuak lixatu eta bernizatu dira.

Irailean Udal-brigadak, ohiko eran, herria mantendu, txukundu, eta herritarren beharrizanak asetzeko lan ugari burutu zituen.

Txindoki zahar egoitzan, eremu publikoaren zati bat egurrezko hesiz, altzairuzko ate eta lorontziz, eta egurrezko bankuen bitartez mugatu da bertako erabiltzaileentzat. Aldi berean, eremu barruan gelditu diren bankuak lixatu eta bernizatu dira.

Lazkaomendiko Abalin baserritik Albitxu behekoa doan errepidearen asfaltaketa burutu zen ere irailean. Aldi berean Senperen eta Enpaundi asfaltaketa konponketa txikiak egin dira.

Kanpandiko erronta, Lazkaomendiko igoerako horman, Dukeen parkean eta Lazkaotik Ataun aldera doan bideko hesietako pintaketak ezabatu dira. Areso haur parkeko eta San Jose auzoko bankuak lixatu eta margotu dira, eta San Prudentzio auzoan eta Dukeen parkean bi zakarrontzi berri jarri dira toki bakoitzean. Kiroldegiko sarrerako sapaia eta teilatu-azpiko hodi zati bat konpondu dira. **Herria guztiona da, eta guztioi dagokigu bera zaintzea. Mantenua Udalak burutzen du, baina zaintza guztioi dagokigu.**

San Prudentzio ikastolako eraikineko barruko kantxan usoak ekiditeko arantzak (pintxoak jarri dira).

Ur sareko irakurketa, matxura eta konponketa lanak burutu ditu Udal brigadak: irailean herriko kontagailu guztien irakurketa egin da. Beiztineko bonbeo instalakuntzatik Lazkaomendiko ur biltegira doan hoditeriak bi matxura jasan ditu azken asteetan, biak konponduak gelditu direlarik. Forja Irizar inguruko ur akomeatuan jarioa zegoela egiaztatu eta konponketa burutu da. San Jose 12 eta Hirigoien 77 eraikinetan bi ur matxura konpondu dira.







## Areso kalean espaloi-egokitzapena, iturria hilerrian edota Txindoki Egoitzan itxitura berria, urriko brigadaren lanen artean

Urrian udazkeneko ohiko lanak burutu ditu Udal Brigadak: tartean, zuhaitzen podaketa lanak edota lorategien txukunketen kudeaketa.
Horrez gain, herriaren gune ugaritan azpiegitura berriei egin zaie tokia, herritarren beharrizanak asetze aldera: Areso kaleko espaloien egokitzapena burutu da, zoladura berrituz; edota hilerrian iturri berria ezarri da.
Horrez gain, pasa den hilean Txindoki zahar egoitzan, eremu publikoaren zati bat egurrezko hesiz, altzairuzko ate eta lorontziz, eta egurrezko bankuen bitartez mugatu da bertako erabiltzaileentzat. Orain egoitzako edukiontziak txukun mantentzeko itxitura ezarri da.

## Acondicionamiento de acera en la calle Areso, fuente en el cementerio o nuevo cierre en la Residencia Txindoki, entre los trabajos de la brigada de octubre

En octubre la Brigada Municipal ha llevado a cabo los trabajos habituales de otoño: entre ellos, las labores de podado de los árboles o la gestión de los arreglos de los jardines.
Además, en numerosas zonas del municipio se ha dado cabida a nuevas infraestructuras para satisfacer las necesidades de la ciudadanía: se ha llevado a cabo el acondicionamiento de las aceras de la calle Areso, renovando el pavimento; o se ha instalado una nueva fuente en el cementerio.
Además, el mes pasado en la residencia Txindoki Zaharra, parte del espacio público se ha delimitado a través de vallas de madera, puertas y macetas de acero, y bancos de madera para sus usuarios. Ahora se ha establecido el cierre para mantener los contenedores de la residencia.





## La Brigada Municipal lleva a cabo el mantenimiento del mobiliario, el asfaltado de vías públicas o la gestión del sistema de agua

Durante los meses de verano y septiembre, la Brigada Municipal llevo a cabo las labores de mantenimiento, adecentamiento y satisfacción de las necesidades de la localidad.

En la residencia Txindoki Zaharra, parte del espacio público se ha delimitado mediante vallas de madera, puertas de acero y tiestos, y bancos de madera para sus usuarios. Al mismo tiempo, se han lijado y barnizado los bancos que han quedado dentro de la zona. También en septiembre se llevó a cabo el asfaltado de la carretera que va del caserío Abalin de Lazkaomendi Albitxu Behekoa. Al mismo tiempo se han realizado pequeñas reparaciones de asfaltado de Senpere y Empaundi.

Se ha llevado a cabo la reparación del techo de acceso al polideportivo y parte de la tubería bajo cubierta. También se han colocado espinas para evitar las palomas en la cancha interior del edificio de la ikastola San Prudencio. La brigada municipal ha llevado a cabo los trabajos de lectura y reparación de la red de agua: en septiembre se ha realizado la lectura de todos los contadores de la localidad. La tubería que va desde la instalación de bombeo de Beiztin al depósito de agua de Lazkaomendi ha sufrido dos averías en las últimas semanas, habiendo quedado ambas reparadas. Se ha comprobado la existencia de un flujo de agua en la acometida de la zona de Forja Irizar y se ha realizado la reparación. También se han reparado dos averías de agua en los edificios San José 12 e Hirigoien 77.

Se ha eliminado las pintadas de Kanpandi, en el muro de la subida a Lazkaomendi, en el parque de los Duques y del camino que va de Lazkao hacia Ataun. Se han lijado y pintado los bancos del parque infantil de Areso y del barrio de San José, y se han instalado dos nuevas papeleras en el barrio de San Prudencio y en el parque de Duques. Lazkao es de todas y todos, y nos corresponde cuidarlo. **El mantenimiento lo realiza el Consistorio, pero es responsabilidad de toda la ciudadanía cuidar nuestro entorno.**




# Lazkaoko Udalak webgune berria estreinatu du

Lan ugariko hilabeteen ondoren, Lazkaoko Udalak webgune berritua du.

Plataforma modernoa sortu da, intuitiboagoa, erabilerraza eta eduki berriekin. Helburua herriko gaurkotasuna argi eta garbi erakustea da, udal zerbitzuei, kultur eta aisialdi eskaintzari eta, azken finean, Lazkaori buruz interesgarria izan daitekeen guztiari buruzko informazioa emateaz gain.

**www.lazkao.eus** helbidearen bidez sartzen den orria hainbat ataletan antolatuta dago, eta udalerriari buruzko informazio guztia jasotzen du, udalari eta haren zerbitzuei buruzkoa bereziki, eta gailu guztietara egokitzen da. Herritarren iradokizunak jasotzeko atala ere eskura dago.

Asmoa da udalerriari modu batean edo bestean lotuta dauden edo herria ezagutu nahi duten pertsona guztiek informazioa jaso ahal izatea eskura dauden instalazioei, jarduerei, tradizioei edo programei buruz.

Udal Kiroldegiaren web berria lantzen dihardu Udalak, zeina urtarrilerako www.lazkao.eus -en baitan egongo den eskura.

# El Ayuntamiento de Lazkao estrena nueva web

Tras laboriosos meses de trabajo el Ayuntamiento de Lazkao ya cuenta con una renovada página web municipal.

Se ha creado una plataforma moderna, más intuitiva, fácil de manejar y con nuevos contenidos. El objetivo es mostrar la actualidad de la localidad de forma clara, además de informar sobre los servicios municipales, la oferta cultural y de ocio, y, en definitiva, todo lo que pueda resultar de interés sobre Lazkao.

La página, a la que se accede mediante la dirección www.lazkao.eus está organizada en secciones que recogen toda la información sobre el municipio, especialmente sobre el Ayuntamiento y sus servicios, y se adapta a todos los dispositivos. Dispone de un apartado para que la ciudadanía envíe sus propuestas.

La intención es que todas las personas que de una u otra manera estén ligadas a nuestro municipio o quieran conocernos, puedan informarse sobre las instalaciones, actividades, tradiciones, o programas que ofrecemos en las distintas áreas administrativas.

El Ayuntamiento esta trabajando en la nueva web del Polideportivo Municipal, la cual estará disponible en enero en lazkao.eus.

# Zerga eta tasa guztiak izoztu ditu Lazkaoko Udalak, zaborrarena kenduta

Ez da igoerarik aplikatuko zerga eta tasetan zaborrarenean izan ezik, %3,6ko igoera egongo da. Sasieta Mankomunitateak Udalari %10,76ko igoera ezarri dio, hortaz, Udalak hiru urteetan jarraian %3,6ko igoera egitea erabaki du.

Urriaren 8an ez-ohiko Osoko Bilkura ospatu zen Lazkaoko Udalean, eta 2021era begira, ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa onartu dira. Orokorrean zerga eta tasa ia guztiak izoztuta mantentzea erabaki da, Kepa Zubiarrain alkateak azaldu eran, "herritarrei eta ehun ekonomikoari garai nahasi hauetan lagundu, mantendu eta etorkizun hurbilean berraktibazioa laguntzeko".

Salbuespena zaborren tasa da: %3,6ko igoera egongo da. Sasieta Mankomunitateak Udalari %10,76ko igoera ezarri dio, hortaz, Udalak hiru urteetan jarraian %3,6ko igoera egitea erabaki du.

Tasa eta zergetan ematen diren dirulaguntzetarako oinarrien aldaketa ere onartu da: dirulaguntza eskuratu ahal izateko irabazien gehieneko mugak igoko dira, herritar gehiagok izan dezan laguntza hau eskatzeko aukera. Irudi honetan adierazten dira igoerak:

# El Ayuntamiento de Lazkao congela todos los impuestos y tasas, excepto el de la basura

No se aplicarán subidas en impuestos y tasas excepto en el de la basura, donde habrá un incremento del 3,6%. La Mancomunidad de Sasieta ha establecido al Ayuntamiento un incremento del 10,76% en el coste del servicio, por lo que el Ayuntamiento ha decidido realizar un incremento del 3,6% en tres años consecutivos.

El 8 de octubre se celebró un pleno extraordinario en el Ayuntamiento de Lazkao, y de cara a 2021 se han aprobado varias modificaciones en las ordenanzas fiscales. En general se ha decidido mantener congelados casi todos los impuestos y tasas, tal y como ha explicado el alcalde Kepa Zubiarrain, "para ayudar a las y los ciudadanos y al tejido económico en estos tiempos convulsos, mantener la actividad y favorecer la reactivación en un futuro próximo".

La excepción es la tasa de basuras: habrá un incremento del 3,6%. La Mancomunidad de Sasieta ha establecido al Ayuntamiento un incremento del 10,76%, por lo que el Consistorio ha decidido realizar un incremento del 3,6% en tres años consecutivos. Asimismo, se aprueba la modificación de las bases reguladoras de las subvenciones en materia de tasas e impuestos, con el fin de incrementar los límites máximos de ingresos para acceder a la subvención, con el fin de incrementar el número de ciudadanos que puedan solicitar esta ayuda. Las subidas se muestran en la siguiente imagen:



| | PGS (950) | PGS + %40 | PGS + %60 | PGS + %80 | PGS + %100 | PGS + %120 | PGS + %140 | PGS + %160 | PGS + %170 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 0.00€ | 13.300,00€ | 18.620,00 | 21.280,00€ | 23.940,00€ | 26.600,00€ | 29.260,00€ | 31.920,00€ | 34.580,00€ |
| | 13.300,00€ | 18.620,00 | 21.280,00€ | 23.940,00€ | 26.600,00€ | 29.260,00€ | 31.920,00€ | 34.580,00€ | 35.910,00€ |
| 1 kide / miembro | %100 | %75 | %50 | | | | | | |
| 2 kide / miembros | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 | | | | |
| 3 kide / miembros | %100 | %100 | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 | | |
| 4 kide / miembros | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %100 | %75 | %50 | %25 |

Ibilgailuen gaineko zergan hobariak egitea ere onartu zen. Ibilgailu elektrikoek %95eko hobaria izango dute (lehen %75ekoa zuten), hibridoek %75ekoa (lehen %50) eta historikoek eta 30 urtetik gorakoek %100eko hobaria izango dute. Obren gaineko zergan ere hobariak onartu dira: eguzki plaken instalazioan %95ekoa izango da, eta interes bereziko obren zergan ere bai, baina ondoren osoko bilkurak onartu beharko du eskaera bakoitza.

También se aprobó la bonificación en el impuesto sobre vehículos. Los vehículos eléctricos tendrán una bonificación del 95% (antes del 75%), los híbridos del 75% (antes del 50%) y los históricos y mayores de 30 años tendrán una bonificación del 100%. También se han aprobado bonificaciones en el impuesto sobre las obras, que será del 95% en la instalación de placas solares y en el impuesto de obras de especial interés, pero posteriormente deberá ser aprobado por el pleno cada solicitud.

# Euskaraldian parte hartzeko deia luzatu die herritarrei Lazkaoko Udalak

Lazkaoko Udalak, Lazkaoko Euskaraldiko batzordearen deialdiarekin bat eginez, herritarrei Euskaraldian izena emateko deialdia luzatu die. Euskararen erabilera bultzatu, hizkuntza ohiturak astindu eta egungo inertzia linguistikoak apurtzeko ariketa soziala dela gogoratu dute Euskaraldiaren parte diren eragileek.

2018an egindako lehen edizioan bezala, bi rolak hautatuko dituzten herritarrak izango dira Euskaraldiko protagonistak aurten 15 eguneko iraupena izango duen ariketan, azaroaren 20an hasita, abenduaren 4ra bitarte. Horretarako, gutxienez euskaraz ulertzeko gaitasuna duten 16 urte baino gehiagoko lazkaotarrek ariketan zehar zein rol nahi duten erabaki beharko dute, beren hizkuntza ohiturak aztertu eta aukeratu ondoren, Euskaraldiak irauten duen bitartean rol bakoitzak dituen jokaerei eutsiz.

Norberaren hizkuntza praktikak aztertu eta, aurtengo Euskaraldiaren leloak dion bezala, euskara "gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" egiteko nahia duten guztiek ekimen honetan lekua dutela azpimarratu du Lazkaoko Udalak.

*Bi izen-emate aukera zabaldu dira Lazkaon: izenematea. euskaraldia.eus helbidean edota kalean Euskaraldiako herri batzordeak jarriko dituen mahaietan*

*Lazkaoko Udalak, herriko beste hainbat elkartek bezala, izena eman du arigune gisa Euskaraldian parte hartzeko*




## El Ayuntamiento de Lazkao anima a la ciudadanía a participar en Euskaraldia

El Ayuntamiento de Lazkao, coincidiendo con la convocatoria de la comisión de Euskaraldia de Lazkao, convoca a la ciudadanía a inscribirse en Euskaraldia. Los agentes que forman parte de Euskaraldia han recordado que se trata de un ejercicio social para impulsar el uso del euskera, reimpulsar los hábitos lingüísticos y romper las inercias lingüísticas actuales.

Al igual que en la primera edición de 2018, las y los ciudadanos que seleccionen los dos roles serán los protagonistas de un ejercicio que este año tendrá una duración de 15 días, a partir del 20 de noviembre, hasta el 4 de diciembre. Para ello, las y los lazkaotarras mayores de 16 años con al menos capacidad de comprensión en euskera deberán decidir qué papel quieren durante el ejercicio, tras analizar y elegir sus hábitos lingüísticos, manteniendo las conductas de cada rol durante el periodo de Euskaraldia.

El Ayuntamiento de Lazkao ha subrayado que todos aquellos que quieran analizar sus prácticas lingüísticas y hacer euskera "gehiago, gehiagotan, gehiagorekin", tal y como recoge el lema de Euskaraldia de este año, tienen cabida en esta iniciativa.

*Se han abierto dos opciones de inscripción en Lazkao: inscribirse en la web www.euskaraldia.eus o en los puestos que pondrá en la calle la comisión ciudadana de Euskaraldia.*

*El Ayuntamiento, al igual que otras asociaciones de Lazkao, se ha inscrito como arigune*






## Lazkaoko Udala arigune

Euskaraldian Ahobiziak eta Belarriprestak izango dira nagusi aurtengo edizioan ere, baina berrikuntzen artean ariguneak daude eta entitateei zuzenduta daude. Banaka euskaraz egiteaz gain, taldean ere euskaraz aritzeko guneak dira. Lazkaoko Udalak, herriko beste hainbat elkartek bezala, izena eman du arigune gisa Euskaraldian parte hartzeko: zehazki Udalak eta Kiroldegiak.

## Zer dira ariguneak?

Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), ariguneren bat badute.

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten uneoro, entitate barruan edo entitateak herritarrekin dituen harremanetan. Talde hauetako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan.

## El Ayuntamiento participará en el Euskaraldia como arigune

El Euskaraldia de este año se basará en la participación de las personas como Ahobizi o Belarriprest, pero como novedad, en esta edición las entidades también pueden participar como arigune. Se trata de participar de forma colectiva. El Ayuntamiento, al igual que otras asociaciones de Lazkao, se ha inscrito como arigune.

## ¿Qué son los arigunes?

Podrán participar todo tipo de entidades (instituciones públicas, agentes sociales, empresas, cooperativas, asociaciones culturales y deportivas, etc.) que cuenten con un arigune. Los Arigunes, o espacios para expresarse en euskera, garantizan en todo momento la posibilidad de expresarse en euskera, ya sea dentro de la entidad o en su relación con la ciudadanía. Los miembros de estos grupos actuarán en forma de ahobizi y belarriprest durante los 15 días que durará Euskaraldia, pero realizarán el ejercicio de forma colectiva.

## Izena emateko aukerak:

- izenematea.euskaraldia.eus helbidean: aukeratu zure rola (Ahobizi, Belarriprest) eta eman izena.
- Kalean Euskaraldiako herri batzordeak jarriko dituen mahaietan: astelehenetan 11:00-13:00etara, osteguna 18:00etatik 20:00etara eta ostiraletan 18:30-20:30etara.

## ¡Incríbete!:

- Inscripción en euskaraldia.eus: elige tu rol (Ahobizi o Belarriprest) e inscríbete.
- En las mesas que se instalarán en la calle por la comisión ciudadana de Euskaraldia: lunes de 11:00-13:00, jueves 18:00 - 20:00 y viernes 18:30-20:30.

# Abian dira kiroldegiko ikastaroak online, Covid-19a mugatzeko segurtasun neurriak betez



Kiroldegiko ikastaroek harrera ona izan dute eta martxan dira gehienak, osasun eta segurtasun neurri guztiak betez. Orain, Covid-19a mugatzeko neurrien ondorioz, online.

Martxan dira Joxe Miel Barandiaran Kiroldegiko ikastaro gehienak, osasun eta segurtasun neurri guztien bermearekin. Lehorreko ikastaroetan 25 talde hasi dira dagoeneko, 211 partaide guztira. Uretako ikastaroetan, berriz, 16 talde zeuden martxan, 101 partaide.

Azaroaren 6ko 38/2020 dekretuak ezarritako neurrien ondorioz, online eskaintzen ari da ikastaroak Kiroldegia, uretakoak izan ezik; hauek momentuz bertan behera geratu dira. Abian dira: pilates, gap, bodytraining, soinketa, zumba, zunba gazte, gymnasia erritmika eta bodytagap.

Hauek dira lehorreko ikastaroei dagozkien datuak: pilates egiteko 11 talde osatu dira, eta 80 partaide dira guztira; Gap-eko bi talde daude, 21 pertsona dira guztira; bodytraining disziplinan ere bi taldetan banatu dira izena eman zuten 24 partaideak; soinketan 5 pertsonako talde bakarra osatu da eta adinekoen soinketan ere talde bakarra osatu da, 11 pertsonekin. Oraingoz, ikastaro guztietan eman daiteke izena oraindik, bereziki goizeko soinketa, zunba eta gap ikastaroetan. Bodytraining eta astelehen eta asteazkeneko pilates klaseak dira salbuespena, gehienezko pertsona kopurura iritsi baitira.

Udalak adinekoen soinketan parte hartzen dutenen harrera azpimarratu nahi du, koronabirusak gehien zigortu duen adin-tartea izanik, beldurrari aurre egin eta jardueretan berriro ere parte hartzea txalogarria baita. Osasuna zaintzea, baita fisikoa ere, garrantzitsua da, eta segurtasun neurri guztiak bermatzen ditu Kiroldegiak ariketa fisikoa egiteko.

Lehorreko gaztetxoen ikastaroetan, bi talde daude zumba egiten dutenak, 18 pertsona guztira; eta, gimnasia erritmika egiten duten 3 talde daude, 30 partaiderekin. Oraindik badago pertsona gehiagorentzat lekua, beraz, izena eman daiteke. Udalak herritarrak ikastaroetan izena ematera animatu nahi ditu, une berezi hauetan ere online modalitatean, eta beste kirol edo jardueraren batean interesa izanez gero, proposamenak luzatzea.

Udalak lanean dihardu, egoerak ahalbidetzen duen bezain pronto, ikastaroak era presentzialean ematen hasteko.

> *Ikastaroren batean parte hartu nahi izanez gero, jarri harremanetan kiroldegiarekin 943 08 51 93 zenbakian.*

Monitoreek kiroldegitik eskaintzen dituzte saioak egunero

Las y los monitores ofrecen a diario desde el polideportivo las clases online





# En marcha los cursos del polideportivo online, cumpliendo las medidas de seguridad para delimitar la Covid-19

Ya están en marcha la mayoría de los cursos del Polideportivo Joxe Miel Barandiaran. En los cursos de sala han comenzado ya 25 grupos, con un total de 211 participantes. En los cursos acuáticos estaban en marcha 16 grupos, 101 participantes.

Como consecuencia de las medidas establecidas por el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, el Polideportivo está ofertando cursos online, excepto los acuáticos, que han sido suspendidos de momento. Están en marcha: pilates, gap, bodytraining, soinketa, zumba, zumba juvenil, gimnasia rítmica y bodytagap.

Los datos correspondientes a los cursos de sala son los siguientes: se han formado 11 grupos para hacer pilates, con un total de 80 participantes; hay dos grupos de Gap, con un total de 21 personas; en la disciplina de bodytraining también se han dividido en dos grupos los 24 participantes que se apuntaron; en gimnasia se ha formado un grupo de 5 personas y en el de mayores también se ha formado un grupo con 11 personas. De momento, están abiertas las inscripciones en todos los cursos, especialmente en los de gimnasia matinal, zumba y GAP. La excepción son las clases de bodytraining y pilates del lunes y miércoles, que han llegado al número máximo de personas.

El Ayuntamiento quiere poner énfasis en la acogida que ha tenido el curso de gimnasia por parte de las personas mayores, la franja de edad más castigada por el coronavirus, ya que es aplaudible combatir el miedo y volver a participar en las actividades. Cuidar la salud, también la física, es importante y el Polideportivo garantiza todas las medidas de seguridad para hacer ejercicio físico.

En los cursos juveniles de sala, hay dos grupos que hacen zumba, con un total de 18 personas; y 3 grupos que hacen gimnasia rítmica, con 30 participantes. Todavía hay sitio para más personas, por lo que está abierta la inscripción.

El Ayuntamiento quiere animar a la ciudadanía a inscribirse en los cursos, también en estos momentos excepcionales en la modalidad online, y en caso de estar interesados e interesadas en algún otro deporte o actividad, estudiar las propuestas y en su caso, ampliar la oferta de cursillos.

El Ayuntamiento trabaja para recuperar los cursos en formato presencial en cuanto la situación sanitaria lo permita.



## Berdegune berria

Mikelartik Santa Madalenara doan bidea bi zentzutik zentzu bakarrera pasa zenean biribilgunearen sarreran erabilerarik gabe gelditu zen errepidearen zati bat. Gune hau txukundu eta 105 m2-ko berdegune bat egokitu du Udalak. Asfaltoa altxatu eta Corten altzairuzko jardinera bat jarri da lurrez bete eta berdegune bat egokitzeko asmoz.

## Nueva zona verde

Cuando el camino de Mikelar a Santa Magdalena pasó de dos sentidos a un solo sentido, parte de la carretera quedó en desuso en la entrada de la rotonda. El Ayuntamiento ha reordenado esta zona y acondicionado una zona verde de 105 m2. Se ha levantado el asfalto y se ha colocado una jardinera de acero Corten para llenar de tierra y crear así una nueva zona verde.

# Asko dugu jokoan Lazkao!

# ¡Tenemos mucho en juego!



## Elkar zaindu gaitezen

## ¡Cuidémonos!

**Ezinbestekoa da musukoa jantzita eramatea**
*Imprescindible llevar puesta la mascarilla*

....

**1,5 metroko segurtasun distantzia mantendu**
*Mantener la distancia inter-personal de seguridad de 1,5 metros*

....

**Ezin da 6 pertsonatik gorako talderik osatu**
*No se pueden formar grupos de más de 6 personas*

**Guztiok elkarrekin egingo diogu aurre Covid-19ari.**
Venceremos al Covid-19 unidas y unidos.

**Guztion ardura da.**
Es responsabilidad de todas y todos.

***Eskerrik asko Lazkao!***

LAZKAOKO UDALA